

LEHENDAKARIAREN 533 /2017 EBAZPENA, AZAROAREN 21KOA.

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ko 08:50ean, epaimahai kalifikatzailea osatu da Sakanako Mankomunitateko aldi baterako idazkari lanpostua ordezkatzeko, oposizio-lehiaketa bidez.

Hona epaimahaikideak:

Mikel Azkargorta Boal lehendakaria
 Maria Asunción Nieto Zabala idazkari-bokala
 Dolores Rejero Santamaría bokala
 Natalia Rodríguez Aguado bokala
 Itziar Iribarren Recarte bokala

Goizeko 09:07ean, izangaiei deia egin zaie, eta proba teorikoa egin dute. Hona emaitzak:

PLICA 1	25,00 punto GAI
PLICA 2	24,00 punto GAI

Azterketa teorikoak zuzendu ondoren, plikak ireki dira. Hona emaitzak:

PLICA 1	25,00 puntos GAI	MIREN ORTIZ OLABE
PLICA 2	24,00 puntos GAI	JOAQUÍN LIZARRAGA SANZ

Izangaiek ez dute lehiaketa faserako dokumentaziorik aurkeztu. Ondoren, azterketa praktikoa egin da. Hona emaitzak:

PLICA 1	12,00 puntos EZ GAI
PLICA 2	10,00 puntos EZ GAI

Azterketa praktikoa zuzendu ondoren, plikak ireki dira. Hona emaitzak:

PLICA 1	12,00 puntos EZ GAI	MIREN ORTIZ OLABE
PLICA 2	10,00 puntos EZ GAI	JOAQUIN LIZARRAGA SANZ

Deialdiaren arabera, lan poltsa sortuko da hautapen-prozesua gainditu arren, lanpostua lortu ez duten izangaiekin, betiere probetatik bat gutxienez gainditu badute. Hona puntuazioa:

IZENA	Proba Teorikoa	Proba Praktikoa	Lehiaketa fasea	Emaitza
MIREN ORTIZ OLABE	25,00	12,00 (EZ GAI)	-	1
JOAQUÍN LIZARRAGA SANZ	24,00	10,00 (EZ GAI)	-	2

Beraz, gaia aztertu ondoren, David Oroz Alonso jaunak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak,

EBAZTEN DUT:

1.^a Miren Ortiz Olabe andrea Sakanako Mankomunitateko aldi baterako idazkaria ordezkatzeko proposatzea.

2.^a Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Egintza honen kontra honako helegite hauek jarri ahalko dira:

- Berraztertze helegitea, egintzaren organo egile beraren aurrean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.
- Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean ebazpena jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barrenean.
- Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epearen barrenean hura jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien epaitegiaren aurrean.

Lakuntzan, 2017ko azaroaren 21ean.

LEHENDAKARIA



David Oroz Alonso